




2012-12-21

# Aoiz: «Nafarroan egun hegemonia dutenek boterea gal dezakete»

Nafarroaren konkistaz harago etorkizunari bidea irekitzen dion liburu bat kaleratu du Floren Aoizek

**KATTALIN BARBER IRUÑEA**

Posible ikusten du Floren Aoizek (Tafalla, 1966) Nafarroan gehiago berriak sortzea eta egun dagoen hegemonia haustea. «Nafarroan hegemonia dutenek hegemonia gal dezakete». Lurraldearen egoera politikoaren analisia egin du Aoizek *Más allá de 1512. Memoria Política y hegemonía* liburuan (Txalaparta). «Ez da 1512ari buruzko liburu bat», argi utzi du idazleak hasieratik. Nafarroako konkistaren urteurrena abiapuntutzat hartuta, haratago joan da idazlea etorkizunari bidea irekitzen dion liburu bat aurkezteko.



Floren Aoizek hegemoniari buruzko hausnarketa egin du. / IÑIGO URIZ / ARP

Iragana, oraina eta etorkizuna biltzen ditu Aoizek liburuan. «Iragana abiapuntua izanik eta 1512an gertatutakoa kontuan izanik, etorkizunera salto egin dugu. Iraganak beste zerbait gehiago eskaintzen diolako etorkizunari». Beraz, iraganaren eta etorkizunaren arteko «zubi liburua» da, orain arte egindako lanen eta «beste begiraden» artekoa. Joxe Azurmendiren aipu bat gogora ekarri du: «Euskaldunok ez dugu iragan hobea izan behar, etorkizun hobea baizik».

Hegemoniaren inguruko hausnarketa landu du gehien Aoizek, «politika eta oroitzapenak nahasirik». Nafarroako egungo hegemonia gainbeheran dagoela —bai nortasunean, baita eredu politikoan ere— eta aurre egiteko «zerumuga partekatuak» behar direla uste du idazleak. «Hegemonia gainditzea posible da, eta estrategia partekatua behar dugu», ziurtatu du. Haren ustez, dagoen hegemonia bukatzeko irtenbidea beste hegemonia bat sortzea da. «Nola gaude? Eta nora goaz?», galdera horiei erantzun nahi izan die Aoizek liburuan.

## Ereduen arteko lehia

«1512. urteko gertakarien harira, izugarrizko lehia politiko-ideologikoa egon da Nafarroan, eta agerikoa da nafar-espainolismoak galdu duela. Herri mugimendua izan da arrakastatsuen». 1212ko Navas de Tolosako guduan eta 1512ko Nafarroako erreinuaren konkistaren mendeurren bete dira aurten, eta memoria berreskuratzen eta iraganeko gertakariak argitzen «izugarrizko lana» egin duten elkarteak zoriondu ditu. Aurten, iraganaren inguruko eztabaidak «berebiziko garrantzia» hartu du, Aoizen ustez; «ereduen arteko lehia izan da, egitasmoen arteko borroka».

Aoizek idatzitako liburua ez da amaituko papereko edizioan. Iruzkina idatziko ditu [www.elomendia.com/1512](http://www.elomendia.com/1512) webgunean. «Gaur egungo egoerari buruzko liburuek gaurkotasuna galtzen dutelako segituan». Horrez gain, euskarazko zenbait zati jarriko dituzte sarean.

Hasieran, Txalpartak eskatuta, konkistaren inguruko liburu bat idatzi behar zuen Aoizek. «Baina interesgarriagoa iruditu zitzaigun ikuspuntu berria ematea gaiari». Konkistaren inguruan lan handiak daudela ziurtatu du Aoizek, eta, horregatik, 1512. urteko gertaeretatik harago joateko beharra sentitu du.